

PODEMOSEN PROGRAMA

herrialde berri baterako

Aurkibidea

5 **Hitzaurrea**

7 **Atariko titulua**

15 **I. titulua**
Oinarrizko eskubide eta eginbeharrak

57 **II. titulua**
Koroa

61 **III. titulua**
Gorte Nagusiak

65 **IV. titulua**
Gobernua eta Administrazioa

71 **VI. titulua**
Botere Judiziala

77 **VII. titulua**
Ekonomia eta Ogasuna

87 **VIII. titulua**
Estatuaren lurralde-antolaketa

97 **IX. titulua**
Konstituzio Auzitegia

101 **Xedapen indargabetzailea**

Hitzaurrea

Programa honetan herrialde berri baten zumitzak biltzen dira. Beste planetarik ez duenez, herrialde honek ahalegin guztiak egingo ditu planeta honetan bizitzen jarraitzearekin bateragarria den industria eredu berria eraikitzeko. Herrialde feminista bat, emakumeak eta gizonak aske eta berdinak izanik, indarkeria orotatik aske eta berdinak bizitzaren euskarri diren zaintza-lanetan erantzunkide izateko garaian eta lan horietarako zerbitzu publikoen sistemaz baliatzeko garaian. Horrelako herrialde bat eraikitzeko modu bakarra demokrazia erreskatatzea da, kontaktuen agendan atxikita duten horiengandik erreskatatzea. Justiziarekin jositako herrialde bat: justizia enpleguan eta pentsioetan, eskubide sozialetan, guztioi dagokigunari egindako zerga-ekarpenetan eta justizia lurraldean. Herrialde horretan sartzen da, halaber, hustuta dagoen baina guk berreskuratu nahi dugun Espainia hori, gutariko bakoitzak non bizi nahi dugun hautatu ahal izan dezagun.

Programa honetan biltzen den herrialde hori inoiz baino gertuago dugu, geure arauen eta geure erakundeen eskueran dago, baina, batik bat, geure talentuaren, geure ahaleginaren eta guztiok elkarrekin osatzen dugun komunitatearen eskueran. Herrialde berri hori komeni ez zaien horiek zera esango dizute, ezinezkoa dela, baina zuk eutsi tinko, inoiz ez baita hain eskueran egon, eta haien milioiak milioi, historia zuk idazten duzu.

Atariko titulua

1.1 artikulua.

Espainiak zuzenbideko estatu sozial eta demokratikoa eratzen du, eta, beraren antolamendu juridikoaren balio nagusi bezala, askatasuna, justizia, berdintasuna eta aniztasun politikoa aldarrikatzen ditu.

1. Espainiak, halaber, estatu feminista eratzen du, planeta zaintzearekin konprometitua dagoena.

2. Zalantzarik gabe feminista izango den Konstituzioa lortzeko lan egitea eta, besteak beste, zaintza-lanak oinarrizko eskubidetzat definituko dituena. Zaintza-lanak jasotzeko aukera eta zaintza-lan horien hornidura unibertsala bermatzeko moduan garatuko dugu legedia.

6. artikulua.

Alderdi politikoek aniztasun politikoa adierazten dute, herri-nahia eratu eta azaltzen dute, eta politikan parte hartzeko oinarrizko tresnak dira. Haien sorrera eta jarduerak askeak dira, Konstituzioa eta legeak errespetatuz. Haien barne-egiturak eta jardunbideak demokratikoak izan beharko dute.

3. Alderdien hauteskunde kanpainak banku krediduen bitartez finantzatzeko

aukera debekatzea. Ordaintzen duenari dagokio aginpidea, eta bankuek ezin dute alderdietako agintea izan.

4. Alderdiak demokratizatzea. Hauteskunde zerrendetan ez ezik, alderdi politikoen organoetan ere txertatuko dugu parekidetasuna, eta hauteskunde primarioak nahitaez egin beharko dira alderdietako organo betearazleetako buru izateko.

7. artikulua.

Langileen sindikatuek eta enpresaburuen elkarteek lan egiten dute beraiei dagozkien interes ekonomiko eta sozialak babestu eta sustatzeko. [...].

5. Negoziazio kolektiboaren boterea berreskuratzea. Sektoreko hitzarmenen nagusitasuna ezarriko dugu, lan baldintzen funtsezko aldaketaren erabilera mugatuko dugu eta mendeko enpresen artean negoziatzeko unitate bat zehaztuko dugu. Era berean, hitzarmenen «aurreragina» esaten zaiona ezarriko dugu berriro.

6. Guardia zibilei ukatutako sindikatu eskubideak eta eskubide zibilak aitortzea.

Guardia Zibilaren barruko erakundeak sindikatutzat hartuko ditugu, eta kideei sindikatu-bizitzan parte hartzea debekatzen dieten arauak indargabetuko ditugu. Aldi berean, haien lan eskubideak bermatuko ditugu, baita eskubide horiek defendatzeko haien burua antolatzeko gaitasuna izatea ere.

8.1 artikulua.

Lehor, itsaso eta aireko gudarosteek osatzen dituzte Indar Armatuak, eta haien eginkizuna da Espainiako subiranotasuna eta independentzia bermatzea, eta haren lurralde-osotasuna eta konstituzio-antolamendua zaintzea.

7. Geure militarren ordainsariak duintzea eta eskubideak parekatzea. Ordainsariak igo egingo ditugu Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoen ordainsarietara hurbiltzeko, eta haien eskubide zibilak parekatuko ditugu; bereziki, biltzeko, manifestatzeko, elkartzeko, adierazpen askatasuna izateko, sindikatzeko eta alderdi politikoetan afiliatzeko oinarrizko eskubideak, besteak beste.

8. Berrogeita bost urtetik gorako militarren kasuan Defentsa Ministerioak ezkutuan ezarri duen Enplegu Erregulazioko Espedientea geldiaraztea. Gaur egun dauden denbora konpromisoak ezabatuko ditugu (tropan eta itsas armadako marinelen kasuan, berrogeita bost urterekin, eta osagarriaren kasuan), eta karrera militar osoa ezarriko dugu, eskalagatik inolako diskriminaziorik gabe.

9.1 artikulua.

Herritarrak eta botere publikoak Konstituzioaren eta antolamendu juridikoaren gainerako arauen menpe daude.

9. Politikan, Administrazioaren goi-mailako karguetan eta Botere Judizialean dauden ate birakariak *trangatzea.* Horretarako, burtsan kotizatzen duten enpresak interes gatazka duten enpresatzat joko ditugu, sektore pribatura igaro ahal izateko bateraezintasunaren iraupena bost urtera luzatuko dugu eta ate birakarien kasu larriak delitutzat tipifikatuko ditugu.

10. Ustelkeriaren aurkako Plan Nazionala; plan horren bitartez, Zigor Kodearen erreforma

bultzatuko dugu eta kargudun politikoen legez kontrako aberastearekin lotutako delitua ez ezik, kontratazio publikoetan administrazioaren prebarikazioa, eroskeria, influentzia trafikoa eta Administrazioari egindako iruzurrak ere txertatuko ditugu, alderdi politikoen bitartez egiten direnean. Era berean, ustelkeriari eta delitu ekonomikoei —kapitalak zuritzea, esaterako— aurre egitera bideratutako unitate gehiago sortuko ditugu Estatuaren Segurtasun Indar eta Kidegoetan, baita Zerga Agentzian ere. Salaketak egiten dituztenei benetako babesa eskainiko zaie.

I. titulua

Oinarrizko eskubide eta eginbeharrak

10.1 artikulua.

Ordena politikoaren eta gizarte-bakearen oinarri dira gizabanakoaren duintasuna, hari datxezkion eskubide bortxaezinak, nortasunaren garapen askea, eta legeei eta gainerakoen eskubideei zor zaien begirunea.

11. Inor atzean gera ez dadin, diru-sarrera nahikoak bermatzea. Diru-sarrera nahikoak izateko prestazioa ziurtatuko dugu: heldu bakoitzeko hilean 600 euro bermatuko ditugu, eta etxekoen unitatea osatzen duten kideen arabera, gehienez 1.200 euro ere izan daitezke. Bermatutako errenta hori aldizka eguneratuko da.

12. Espainia munduko aitzindarien artean kokatzea mendekotasunari emandako arretari dagokionez. Zaintza-lanen sistema unibertsal, publiko eta nahikoa finkatuko dugu, mendekotasuna dutenen autonomia funtzionala bermatzeko. Sistema horretan artatutako mendeko pertsonen kopurua 1,6 milioira handituko dugu, eta 400.000 lanpostu berri ere sortuko ditugu. Itxarote-zerrendak desagerraraziko ditugu, eta mendekotasuna aitortuta dutenei prestazio eta zerbitzuetarako sarbidea bermatuko

diegu. Profesionalak ez diren zaintzaileek Gizarte Segurantzari kotizatuko diote eta prestazioak jasoko dituzte, esaterako, langabeziagatiko prestazioa. Egungo bateraezintasunen sistema berraztertuko dugu, eta koordainketa kenduko dugu.

13. **Hogei mila biztanle bakoitzeko gizarte zerbitzuen zentro bat ezartzea;** zentro horretan, gizarte langile bat, gizarte hezitzaile bat eta psikologo bat, gutxienez, egongo dira.

10.2 artikulua.

Konstituzioak aitortzen dituen oinarrizko eskubideei eta askatasunei buruzko arauak interpretatzeko, kontuan hartuko da Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala, bai eta gai berberen inguruan Espainiak berretsi dituen nazioarteko tratatuak eta itunak ere.

14. **Bizilekua izateko beste aukerarik ez dutenen kasuan, etxegabetzeak debekatzea.** Etxebizitza izateko eskubideari dagokionez, Espainiak nazioarteko betebeharrak beteko dituela bermatuko dugu, eta berme hori benetan gauzatzeko, koordinazio-protokoloak bultzatuko ditugu

Administrazioen eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren artean.

15. Gure memoria demokratikoari justizia egitea. Billy «Haurra»ri emandako dominak kenduko dizkiogu, Amnistia Legea aldatuko dugu faxismoak egindako gizateriaren aurkako delituak epaitu ahal izateko, auzitegi frankisten zigorrak indargabetuko ditugu eta frankismoak indarrez ebatsitako ondasunen auditoria egingo dugu, bidezko jabeei itzultzeko.

16. Espainia, nazioarteko demokraziaren bultzatzaile. Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluaren demokratizazioa sustatuko dugu; horretarako, NBEan Parlamentu Biltzarra sortu beharko litzateke, demokratikoki hautatua, funtsezko gaiak lantzeko, hala nola emakumeen aurkako egiturazko indarkeria, klima aldaketa, nazioarteko merkataritzaren desorekak, paradisu fiskalen aurkako borroka edo migrazioak. Biltzar horrek nazioarteko erakundeetako maila guztietan parekidetasuna ziurtatzeko talka planak sustatuko ditu; sarearen neutraltasuna bermatzeko lan egingo du;

desinformazioaren aurka borrokatzeko nazioarteko agentzia bat sortzeko lanetan aitzindari izango da eta justizia klimatiko globala indartuko du. Jurisdikzio unibertsala berreskuratuko dugu, PSOEk 2009. urtean eta PPk 2014. urtean egindako erreforma lotsagarrien aurretik zegoen moduan.

14. artikulua.

Espainiarrak legearen arabera berdinak dira, eta ezin da inolako bereizkeriarik egin, jaiotza, arraza, sexu, erlijio, iritzi nahiz bestelako inguruabar edo egoera pertsonal zein sozialak aintzat hartuta.

17. **Zaintza-lanen ekonomiarako zerbitzu publiko sendoak lortzeko inbertsio programa handia txertatzea,** eta epe oso laburrean, lurralde osoan bidezko moduan banatuko diren milioi erdi lanpostu baino gehiago sortzeko gaitasunarekin.

18. **Parekidetasuna ezartzea Administrazio Publikoetan eta diru publikoz finantzatutako erakundeetan,** hala nola Hizkuntzaren Errege Akademian. Lau urteko epean, osaera parekidea izan beharko dute; bestela, finantzaketa publikoa kenduko zaie.

19. **Lesbiana, gay, trans, bisexual eta intersexualen eskubideak zabaltzea;** horretarako, bi lege onartu behar dira: bata genero nortasunak eta sexu orientazioak eragindako diskriminazioaren kontra; eta bestea pertsona horien babes juridikoa eta nortasuna libreki erabakitzeko eskubidea bermatuko duena.

20. **Espainian sartzeko bide seguruak eta legezkoak ezartzea, eratorritako irregulartasuna amaitzea eta migratuen eskubide zibilak bermatzea.** Gure Estatuan sartzeko bide seguruak eta legezkoak antolatuko ditugu. Errotze prozesuak malgutu eta migratuen eskubide zibilak bermatuko ditugu; horretarako, nazionalitatea eskuratzeko aukera emango diegu eta azterketa kenduko dugu eta, hartara, migrazioak baldintza seguruetan egingo dira eta Estatuak giza eskubideak —batik bat, bizitza— bermatuko ditu.

15. artikulua.

Guztiek bizitza eta osotasun fisiko nahiz moralerako eskubidea dute, eta ezin da inoiz torturarik egin, ez eta zigor edo tratu jasanezin edo apalesgarririk ere. Heriotza-zigorra indarrik gabe geratzen da [...].

21. **Indarkeria Matxisten aurka Borrokatzeko Estatuko Plana ezartzea;** urtean 600 milioi euro bideratuko dira plan horretara. Genero Indarkeriaren aurkako Estatuko Ituna berehala aplikatuko dugu eta, aldi berean, prebentzioko helburu handiagoak sustatzeko lan egingo dugu.

22. **Indarkeria matxisten biktima diren emakumeei zuzendutako konpentsazioko, erreparazioko eta autonomia berreskuratzeko Plan Integrala abiaraztea.** Plan horrekin, gutxienez 900 euroko prestazioa emango da, indarkeria matxistaren biktimari eta haren kargurako haur eta nerabeei bizilekua izateko aukera bermatuko zaie, eta berrogeita bost urtetik gorako emakumeentzako berariazko enplegu plana ezarriko da, besteak beste.

23. ***Indarkeria matxista*** **kontzeptuaren definizioa eguneratzea,** emakumeen aurkako indarkeria mota guztiak sar daitezen, bikotekideek edo bikotekide ohiek egiten dutenaz gain. Horri esker, indarkeria jasaten duten gainerako emakumeen pareko babesa jasoko dute; adibidez, ezezagun baten edo nagusiaren edo lankide baten aldetik.

24. «Ez, ez da» esamoldetik «Soilik bai da bai» esamoldera igarotzea. Aldaketa hori egiteko lege bat onartuko dugu, eta emakumeek espazio publikoa eta pribatua okupatzeko gizonen eskubide berdina izan dezaten eta sexualitatea askatasunez baliatzeko aukera izan dezaten lortzea ere izango da legearen xedea.

25. Duintasunez hiltzeko askatasuna bermatzea. Sendabiderik gabeko sufrimendua pairatzen dutelako bizitzeari uztea erabakitzen duten pertsonentzat eta pertsona horiei laguntzen dieten profesionalentzat berme guztiak emango dituen lege bat erregistratuko dugu.

26. 2020 helburua: zero hildako Mediterraneoan, bizitzeko eskubidea ziurtatzearren. Itsas Salbamenduko zerbitzua indartzea; zerbitzu publiko eta zibil moduan jarraituko du, eta eginkizun bakarra izango du: itsasoan bizitza salbatzea. GKEei Espainiako portuetatik ateratzeko debekuak ezabatuko ditugu. Eta, gainera, hegoaldeko mugan giza eskubideak betetzen direla ziurtatuko dugu, eta legez kontrako espres itzulketak edo bero-beroan egiten direnak eragotziko ditugu.

16.3 artikulua.

Erlijio batek ere ez du izango estatu-izaerarik. [...].

27. Ondasun Higiezinen gaineko Zerga ordaintzeko salbuespena kentzea Elizari, betiere kultuak egitera bideratzen diren higiezinak ez badira, Cáritas erakundeak gizarte ekintzarako erabiltzen dituen ondasunak ez badira edo arrazoi orokorrengatik salbuespen hori duten bestelako ondasunak ez badira.

28. Elizak bidegabe immatrikulatutako ondasunak berreskuratzea; 2015. urtera arte erregistratu zituenak, elizako kideen adierazpen hutsetan oinarrituta.

20.1 artikulua.

Hurrengo eskubideak aitortu eta babesten dira: a) Pentsamenduak, ideiak eta iritziak hitzez, idatziz nahiz beste edozein bidetatik askatasunez azaldu eta zabaltzeko; b) ekoizpen eta sortze literario, artistiko, zientifiko eta teknikorako.

29. Mozal legea eta Erdi Aroko bi delitu desagertzea, hau da, sentimendu erlijiosoen ofentsa eta Koroa iraintzea.

Mozal legea indargabetuko dugu eta Zigor Kodea aldatuko dugu adierazpen eta iritzi askatasunaren kriminalizazioarekin bukatzeko.

30. **Artistaren Estatutua gauzatzea, kulturan lan egiten dutenak babesteko eta haien lana jasangarri egiteko.** Laneko gaixotasunen aitorpena eta gaixotasun horien babesa, eta sorkuntzako eta prestakuntzako aldien aitorpena hobetuko ditugu, baita karrera artistikoaren amaierako lanbide arloko trantsizioa ere. Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren epigrafeak eta langabeziagatiko babesak eguneratuko ditugu, eta indarkeria matxisten aurrean jokatzeko protokoloak indartuko ditugu.

20.3 artikulua.

Legeak arautuko ditu estatuaren nahiz bestelako erakunde publikoen menpeko gizarte-komunikabideen antolakuntza eta parlamentu-kontrola, eta adierazgarri diren gizarte-talde eta talde politikoei bermatuko die haietan parte hartzea, Espainiako gizarte-aniztasuna eta hizkuntzak errespetatuz.

31. Bankuak eta funtsak komunikabideen jabe izan daitezen debekatzea.

Espainiako demokraziaren osasunari eustearren, botere finantzario handia dutenek ezin izango dute botere hori baliatu komunikazioa eta iritzi publikoaren sorrera ere kontrolatzeko.

32. **RTVE berria, neutralagoa eta demokratikoagoa.** RTVE eta haren Sozietateak eraldatzeko plan bat ezarriko dugu, honako hauek bermatzearren: gardentasuna, profesionalen eta ikus-entzuleen parte-hartzea, zerbitzu publikoaren izen ona eta berritze prozesua lehiaketa publikoaren bidez finkatzea. Produkzio propioan inbertitzeko programa bat ziurtatuko dugu Eremu Digitalerako eta, hartara, informazio zerbitzuak ez dira kanpora aterako eta 2012. urtea baino lehenagoko zuzkidura mailak lortuko dira.

27.2 artikulua.

Giza nortasuna oso-osorik garatzea da hezkuntzaren helburua, betiere bizikidetasunaren printzipio demokratikoak, eta oinarrizko eskubideak eta askatasunak errespetatuz.

33. Euroguneko beste Estatuen pareko zerbitzu publikoetako inbertsioa lortzea

legegintzaldi batean. Hezkuntzan, BPGaren %4tik %5,6ra igaroko da 2023. urtean.

34. **Feminismoen irakasgaia sortzea.** Hezkuntza denez desberdintasunean oinarritutako harremanak eraldatzeko tresna nagusia, eduki feministak zeharkakoak izango dira hezkuntzako etapa osoan eta feminismoen irakasgai bat sortuko da hezkuntza publikoan; horretarako, hezkuntza komunitatearen parte hartzearekin kontatuko dugu.

35. **Bizikidetza hobetzeko plan bat ezartzea Ikastetxeetan *Bullying*a (jazarpena) eta indarkeria prebenitzeko.** Segurtasuna eta aukera-berdintasuna bermatuko diegu ikasle guztiei, jatorria, orientazio sexuala, genero adierazpena edo beste edozein ezaugarri gorabehera.

36. **Prestakuntza eta Alfabetatze Digitaleko Estrategia abiaraztea** digitalizazioko prozesuaren onurez berdintasunean baliatu ahal izateko. Hezkuntza sistemaren eta bizi osoko prestakuntzaren maila guztietan baliabideak abiaraziko ditugu. Lehen Hezkuntzatik hasita, robotikako,

programazioko, web diseinuko, *app*ei buruzko, *hardware* eta bideo-jokoei buruzko edukiak txertatuko dira.

27.4 artikulua.

Oinarrizko hezkuntza nahitaezko eta doakoa da.

37. Derrigorrezko hezkuntza benetan doakoa eta eraginkorra izango dela bermatzea: liburuak, eskola materiala eta jangela derrigorrezko hezkuntzaren etapa guztietan egoera sozioekonomiko ahulean dauden familientzat. Era berean, itunpeko ikastetxeetan legez kontrako kuoten ordainketarekin bukatuko dugu.

38. Beka sistema nahikoa bermatzea, emandako beken kopurua eta zenbatekoa handitzea eta, gainera, soilik posizio ekonomikoaren araberakoa izango da. Halaber, egutegi bat ezarriko da prozesua ikasturtea hasi aurretik ebatzi eta emandako zenbatekoa lehen hiruhilekoan kobratu ahal izateko.

39. Unibertsitate publikoa doan, baita lanbide heziketa eta masterrak ere lanbide batean jarduteko trebatzen badute (bestela, prezioa

murriztuko da, gutxienez, graduen egungo preziora).

31.1 artikulua.

Guztiek gastu publikoei aurre egiten lagunduko dute, bakoitzak bere ekonomia-ahalbidearen arabera; horretarako, zerga-sistema zuzena ezarriko da, berdintasun- eta progresibitate-printzipioetan oinarriturik; sistema hori ez da inoiz konfiskagarri izango.

40. Espainiako Bankuak 2017. urtean galdutzat eman zituen **bankuen erreskateari zegozkion 60.000 milioi euroak berreskuratzea.** Diru hori berreskuratzeko, transakzio finantzarioei zerga bat ezarriko diegu, sozietateen gaineko zerga aldatuko dugu korporazio handiek ordaintzen dituzten zergei dagokienez eta bankari berariazko zerga ezarriko diogu.

41. **Aberastasun handiak zergapetzeko zerga bat sortzea,** milioi 1 eurotik gorako ondareen kasuan BPGaren %1 bildu ahal izateko. Zerga horretan, lehenengo etxebizitzari dagokion gutxieneko bat (400.000 euro) salbuetsita egongo da eta 100 milioi eurotik gorako ondasunei gehienez %3,5eko zerga ezarriko zaie.

42. **Korporazio handiek sozietateen gaineko zergan dituzten pribilegio fiskalak ezabatzea eta ETEei zerga hori murriztea.** Gutxieneko tasa efektiboa %15 izango da, eta %20ra ere iritsi ahal izango da erakunde finantzarioen eta hidrokarburoen enpresen kasuan. Aldi berean, enpresa txikien tasa %25etik %23ra jaitsiko dugu.

43. **Paradisu fiskalak sozietateen gaineko zerga ez ordaintzeko erabil daitezen saihestea.** Sozietateen gaineko zerga eraldatuko dugu paradisu fiskalak edo zerga maila txikikoak erabili ez daitezen; horrela, bada, zerga-ordainketa bikoitzagatiko salbuespena kasu bakarrean onartuko da, hau da, gutxienez %15a beste herrialde batean benetan ordaindu bada.

44. **Barneko paradisu fiskalak desagerraraztea, hainbat sozietate eskemek dituzten pribilegioak kenduz.** Atzerriko baloreak edukitzeko entitateen (ETVE) araubide fiskal pribilegiatuarekin bukatuko dugu, baita SICAV (kapital aldakorreko inbertsio sozietateen), SOCIMI (inbertsio hirigarri eta higiezineko sozietate eta funtsak) eta lurralderatuen araubidearen kasuetan ere;

izan ere, azken kasu horretan, Espainiara lanera etorri eta gehienez 600.000 euroko errentak jasotzen dituztenei PFEZ gutxiago ordaintzeko aukera ematen zaie.

45. Pantaila sozietateen erabilera debekatzea; izan ere, ohiko etxebizitzaz zerga gutxiago ordainduta baliatzeko tresnatzat erabiltzen baitira.

46. PFEZ bidezkoagoa eta mailakatua ezartzea; hartara, karga guztia ez da geratuko lan gehien egiten dutenen gain. Alde batetik, urtean 100.000 eurotik gorako errentek apur bat gehiago ordainduko dute (%47), eta urtean 300.000 euro baino gehiagoko errenten kasuan %55era ere iritsiko da; era berean, kapitalaren errentek laneko errentek baino zerga askoz ere gutxiago ordaintzea bidegabekeriatzat jotzen dugunez, egoera hori aldatu egingo dugu. Horrekin batera, PFEZaren salbuetsita ez dagoen lehen tartearen —tarterik txikienaren— interes-tasa %18ra murriztuko dugu.

47. Transakzio finantzarioen zerga bat ezartzea, egun berean egindako salmenta gordinak

—ez soilik garbiak— zergapetzeko, eta akzioen salerosketaz bestelako eragiketak ere sartuko dira (esate baterako, deribatuak), alde batetik, inbertitzen ari den aurrezle txikia eta, bestetik, eragiketa espekulatiboak bereizi ahal izateko.

48. **Bankari zerga bat ezartzea,** sozietateen gaineko zergan erakunde finantzarioen zerga-tasa 10 puntu igota.

49. **BEZa jaistea:** %4ra elikagai eta alkoholik gabeko edari gehiagoren kasuan, emakumeen higienerako produktuen eta animalien elikagaien kasuan; eta %10era egoera ahulean dauden kontsumitzaileen oinarrizko hornigaietan (berokuntza, gasa, elektrizitatea) eta albaitaritzako zerbitzuetan. **%4ko plus bat bultzatuko dugu luxuzko artikuluen kasuan.**

50. Zergarik ordaintzen ez duten **ekonomia digitaleko eragiketetarako zerga bat ezartzea,** esate baterako, lineako publizitatea eta bitartekaritza eta datuen salmenta, betiere mundu osoan lortutako urteko guztizko diru-sarrerak 500 milioi

euro, gutxienez, eta Espainiako diru-sarrerak 3 milioi eurotik gorakoak dituzten enpresetara mugatuta.

51. Zerga Iruzurrari aurre egiteko Estrategia Nazionala abiaraztea; horretarako, Zerga Agentzia indartuko dugu; Iruzurgile Handien aurka borrokatzeko bulegoa sortuko dugu; zerga eta zigor arloetako preskripzio epeak 5 urtetik 10 urtera luzatuko ditugu, zigorrak handituko ditugu eta zerga delitua 50.000 eurora jaitsiko dugu; eta aurreko Gobernuen zerga amnistia jaso zutenen zerrenda argitaratzeaz gain, horrelakorik berriro ez gertatzeko debekua ezarriko dugu Konstituzioaren bidez.

35.1 artikulua.

Espainiar guztiek lan egiteko eginbeharra dute, eta lanerako eskubidea dute, lanbide edo ogibidea askatasunez aukeratzeko eta lanean igotzeko eskubideak dituzte, eta beren beharrizanak eta beren familiarenak asetzeko adina ordainsari jasotzeko eskubidea ere, inoiz sexu-arrazoiengatik bereizkeriarik gertatu gabe.

52. Milioi bat lanpostu baino gehiago sortzea honako proposamen hauek ezarrita:

Horizonte Berdea eta Industria Eredu Berria, Horizonte Morea eta Zaintza-lanen ekonomia, eta Horizonte Digitala eta Ekonomia berria.

53. PSOE eta PP alderdien lan erreformen bitartez ezarritako ustezko **«malgutzea» ezabatzea.** Aldi baterako kontratu mota bakarra utziko dugu, eta produkzioarekin lotutako ezusteko kausengatik (ez kanpainengatik, ezta sasoiko lanagatik ere) eta antolaketarekin lotutako kausengatik (baja baten ordezkapena —bitartekoa—) baino ezin izango da egin.

54. **Hilabete baino gutxiagoko iraupena duten aldi baterako kontratuak debekatzea, baita kontratuak bata bestearen atzetik kateatzearen iruzurra ere.** Aldi baterako kontratuek hilabete 1etik 6 hilabetera bitarteko iraupena izango dute. 6 hilabetetik gorakoa bada edo iruzur kasuan, kontratatu den pertsona mugagabeko kontratuduntzat hartuko da.

55. **Kontratu mugagabeak benetan egonkor bihurtzea.** Horretarako, Zapateroren eta

Rajoyren lan erreformak indargabetuko ditugu, kontratu finkoak ere prekario bihurtu zituztelako. Bereziki, kaleratze objektiboa justifikatzen duten egoera ekonomikoak zeintzuk diren zehazteko erregulazio argia eta egokia ezarriko dugu.

56. Soldata aldea desagerraraztea ordainsarien berdintasunari buruzko lege baten bitartez; lege horretan, enpresetako ordainsariak aztertuko ditugu, %20tik gorako aldeak diskriminaziotzat joko ditugu eta, beraz, epaitegietan justifikatu beharko dira. Enpresa handiek auditoriak egin beharko dituzte soldatetan, eta uko eginez gero, zigorrak jasoko dituzte.

57. Azpikontratazioan ordena jartzea eta azpikontratatutako enpresetako langileen lan eskubideak babestea. Azpikontratazioa enpresaren jarduera nagusiaz bestelako zerbitzu espezializatuetara mugatuko dugu. Azpikontratazioa justifikatuta dagoenean, azpikontratatutako langileek enpresa nagusiko langileen baldintza berdinetan jardungo dute.

58. Aparteko orduen iruzurrarekin bukatzea.
Enpresek aparteko orduak erregistratzea eta ordaintzea derrigorrezkoa izango da. Lanaldi partzialeko lanpostuetan, kontratuan jasotakoaz gaindiko lan ordu oro hartuko da aparteko ordutzat eta, noski, aparteko moduan ordainduko da.

59. Sasi-autonomoen iruzurra amaitzea.
Besteren konturako lan harremana dagoela hartuko da baldin eta autonomoak dirusarreren iturri garrantzitsu bakarra badu. Iruzurraren eraginpean dagoena babestu egingo dugu eta pertsona hori kontratu mugagabe batekin kontratatzera behartuko dugu enpresa, baita pertsona horren Gizarte Segurantza ordaintzera ere, sortu ahal izan dituen bestelako eskubideak ere aintzat hartuta. Espezializatutako ikuskapenen kanpaina garrantzitsua egingo dugu.

60. Ekonomiaren *uberizazioa* geldiaraztea.
Horrelako plataformen mende dauden pertsonak besteren konturako langiletzat hartuko dira. Lan eredu berri horiek ikuskatzeko unitate bereziak sortuko ditugu, batik bat, sasi-autonomoen erabilera eta

kotizatu gabeko aparteko orduen bidezko lana ikuskatzeko. Zerga Agentziaren barruan ere beste horrenbeste egingo dugu, zergen ordainketa kontrolatzeko Espainian.

61. **Lanbidearteko gutxieneko soldata 1.200 eurora igotzea datorren legegintzaldian.** 1.000 eurora igo behar da berehala, eta zenbateko hori 1.200 eurora eguneratuko dela bermatu behar da, Europako Gutun Sozialean xedatutakoari jarraikiz.

62. **Eskubideak berreskuratzea lanpostu prekarioenetan eta feminizatuetan.** Gela-zerbitzarien (kelly-en) eskubideak bermatuko ditugu: hotelak zuzenean egitea kontratua eta erretiroa aurrez hartzeko aukera, penalizaziorik gabe. Etxeko langileen eskubideak bermatuko ditugu; horretarako, LMEaren 189. hitzarmena berretsiko dugu eta Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean sartuko ditugu, langabeziagatiko prestazioa jasoko dute edo kaleratzeen aurrean babestuta egongo dira. Kotizazioan hutsuneak izanez gero, horiek osatzeko aukera aitortuko dugu, baita aurrez erretiratzeko aukera ere, penalizaziorik gabe.

Horien antzeko neurriak hartuko ditugu lanpostu feminizatu eta prekarizatuetan ere, hala nola oinetako josleen kasuan eta bestelakoetan.

38 artikulua.

Enpresa-askatasuna aitortzen da merkatu-ekonomiaren eremuan. Botere publikoek bermatu eta babesten dituzte haren egikaritza eta ekoizgarritasunaren defentsa, ekonomia orokorraren eskakizunei kasu eginez, eta, hala denean, plangintza kontuan izanik.

63. **Autonomoentzako bidezko kuotak ezartzea.** Langile autonomoen egoerari erreparatzea premiazkoa da; benetan lortzen dituzten errendimenduengatik soilik kotizatu behar dute, eta ez egun dagoen desproportzioarekin.

64. **Autonomoak eta ETEak kontsumitzaile direla aitortzea korporazio handiekin dituzten harremanetan, betiere beren jarduera nagusiaz bestelako zerbitzuen kasuan.** Elektrizitatearen, bankuen edo telekomunikazioen arloetako oligopolioaren aurrean babesgabetasuna saiheste aldera, kontsumitzeko eskubidea ETEetara egokituko

dugu eta enpresa handiek ordaintzeko gehieneko epeak ere finkatuko ditugu.

39.1 artikulua.

Botere publikoek familiaren babes sozial, ekonomiko eta juridikoa ziurtatzen dituzte. [...] 4. Umeek nazioarteko itunetan ezarritako babesa izango dute, itunok haien eskubideak zaintzen dituzten neurrian.

65. Haur Hezkuntzaren (0-3 urte) estaldura unibertsala eta doakoa bermatzea. Hurrengo legegintzaldian, Haur Hezkuntzako (0-3 urte) sistema bat ezarriko dugu; sistema horrek, estaldura unibertsala eta doakoa eskainiko die haur guztiei, beren gurasoen ordainpeko guraso-baimenak amaitzean. Horrekin 100.000 lanpostu baino gehiago sortuko ditugu zuzenean, eta itzulkinak ere handiak izango dira, gainera, kotizazioetan eta kontsumoan.

66. Haur eta nerabeak zaintzeagatiko prestazioa; urtean 1.200 euro izango da, gehienez, oro har, eta pobrezia egoera larrietan, 2.000 eurora ere irits daiteke. Hasteko, pobreziaren arriskuan dauden familiak urtean 600 euro jasotzen hasiko

dira berehala, eta guraso bakarreko familien kasuan %50 handiagotuko da.

67. **Aitatasuneko eta amatasuneko baimenak berdinak eta besterenezinak izango dira.** Baimenen sistema zabalduko dugu eta, semea edo alaba jaiotzen denean, haur bat adoptatzen denean, zaintzan hartzen denean adoptatzeko eta harreran hartzen denean, baimen horiek berdinak eta besterenezinak izango dira, eta guraso bakoitzaren oinarri arautzailearen %100 ordainduko da, gurasoaren sexua eta familia mota edozein izanik ere. Ezaugarri horiekin, **bi gurasoentzat 16 asteko baimen berdina proposatuko dugu eta urtean 2 aste luzatzeko aukera, guraso bakoitzak 24 aste (urte-erdia) hartu ahal izateko.**

68. **Astean 34 orduko lanaldia eta laneko, aisialdiko eta zaintza-lanetako denborak berrantolatzea.** Astean 34 orduko lanaldia ezarriko dugu, soldata murriztu gabe, lanetik deskonektatzeko denbora babestuko dugu, ordutegiak malgutu egingo ditugu eta telelanaren aukera eskainiko dugu. Zaintzaile direnentzat atseden hartzeko planak

ezarriko ditugu, eta zaintzaile profesionalak babestuko ditugu, LMEaren 189. hitzarmena berretsita eta Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean eskubide osoko kidetzat txertatuta.

69. Haurtzaroan egiten den inbertsio publikoa Europako batez bestekora iritsi arte igotzea, neska-mutilen artean aukera berdintasuna eta diskriminaziorik eza egia izan daitezen.

70. Guraso bakarreko familiak babestea eta familia ugarien pareko bihurtzea, segurtasun juridikoa emango dien definizioa finkatzea, seme-alabak zaintzeagatiko prestazioak igotzea, eta lehentasuna izatea zerbitzu eta prestazioak baliatzeko garaian, hala nola 0-3 urteko hezkuntzaren ezarpen unibertsalean edo beketan.

42. artikulua.

Estatuak bereziki zainduko ditu atzerrian ari diren langile espainiarren eskubide ekonomiko eta sozialak, eta haien itzuleraren alde zuzenduko du bere politika.

71. Itzultzeko Estatu Plana abiaraztea itzuli nahi duen orok itzultzeko aukera izan dezan.

Horretarako, eta guk proposatzen ditugun hiru horizonteei esker, milioi bat lanpostu baino gehiago sor daitezke eta, zentzu horretan, itzuli nahi duten emigratuak bereziki aintzat hartuko dira. Errentari dagozkion baldintzak betetzen direnean, hilean 600 eurotik 1.200 eurora bitarteko diru-sarrerak bermatuko dira berehala, eta enplegu publikoaren eskaintzak aldatu egingo ditugu, kanpoan bizi direnak ez diskriminatzeko.

72. *Brexit*a dela eta, Erresuma Batuan dauden espainiarrak babesik gabe utziko dituen akordio bat bera ere ez. Espainiako Gobernuak ez du parte hartuko Europar Batasunaren (EB) eta Erresuma Batuaren arteko ezein akordiotan, betiere Erresuma Batua EBtik ateratzeari dagokionez, baldin eta han bizi diren espainiarren eskubideren bat —baita eskubide sozialak ere— urratzen bada.

43. artikulua.

1. Osasuna babesteko eskubidea aitortzen da. 2. Botere publikoei dagokie aurreneurrien bidez eta beharrezkoak diren zerbitzu eta prestazioen bidez osasun publikoa antolatu eta babestea. Horretarako, legeak ezarriko ditu guztion eskubideak eta eginbeharrak. [...]

73. **Euroguneko beste Estatuen pareko zerbitzu publikoetako inbertsioa lortzea legegintzaldi batean.** Horrek zera esan nahi du, gaur egun, BPGaren %6 bideratzen bada osasunaren arlora, 2023an %7,5era iritsi behar duela; horri esker, lehen mailako arreta indartu eta osasun arloko langileak zaindu ahal izango ditugu.

74. **Osasunaren merkantilizazioa geldiaraztea.** Osasun publikoa pribatizatzeko planei aurre eginez, premiazko neurriak hartuko ditugu ondare komun hori babesteko; esate baterako, osasunaren kudeaketa pribatuaren zabalkundea ahalbidetzen duen indarreko araudiaren ordez, zuzeneko kudeaketa publikoan oinarritzen den beste bat ezartzea.

75. **Itxarote-zerrendak murriztea** eta, legegintzaldi batean, patologia larri batekin lotura izanik, espezialista batekin hitzordua finkatzeko edo ebakuntza bat egiteko gehienez hilabete itxaron behar izango dela bermatzea.

76. **Osasun sistemetako zerbitzuetan doako dentista zerbitzua txertatzea** eta, zerbitzu horretan, orain arte sartzen ez diren

oinarrizko zerbitzuak sartzea, hala nola enpasteak, garbiketak, ortodontziak, endodontziak, protesiak eta ferulak.

77. Gure jendea apustu etxeen gainetik.
Apustu etxeen inbasioa geldiarazteko, lokal horiek ezin izango dira 22.00ak baino lehen ireki eta ezin izango dute publizitaterik egin, jarduera lokaletan nahiz interneten garatzen duten gorabehera, betiere beste produktu kaltegarri batzuekin —hau da, alkoholarekin eta tabakoarekin— egiten denari jarraikiz. Mendekotasun edo adikzioak murrizteko beste neurri batzuk ere ezarriko dira, eta zergak gehituko zaizkie, eragiten duten kalte sozialaren tratamendura eta prebentziora bideratzeko. Aitzitik, gazteentzako zentro sozialak indartuko ditugu auzo horietan.

44.2 artikulua.

Botere publikoek, interes orokorraren mesederako, zientzia eta ikerketa zientifiko nahiz teknikoa bultzatuko dituzte.

78. Zientzia eta I+G+Ba gure ekonomiaren euskarri bihurtzea eta, horretarako, I+G+Ban egiten den inbertsio publikoa BPGaren %2ra

igotzea legegintzaldiaren amaierarako. Zuzeneko laguntzak (%100 betearaziko dira) kreditu finantzarioei nabarmen gailenduko zaizkie —betearazi egin behar izango dela aurreikusten den kasuan baino ez dira emango—, eta enpresei ematen zaizkien diru-laguntzak egiaz I+G+Bko jardueretara bideratzen direla bermatuko da, eta ez lehendik finkatuta zeuden jardueretara.

79. Zientzialarien kanporatze prozesua leheneratzea talka plan baten bitartez eta, legegintzaldi batean, Europar Batasunaren mailara iristea ikerketan jarduten duten pertsonen proportzioari dagokionez; horretarako, urtean 5.000 ikertzaile garbi gehiago behar ditugu.

80. Karrera akademiko egonkor eta duina. Ikertzaileen Estatutu Berrian irizpide argi eta objektiboak finkatuko dira fase berri bakoitzera igarotzeko; horrela, bada, karrera zientifiko bat hasten dutenen %75ek ere aukera izan beharko lukete zientziaren edo goi-mailako hezkuntzaren arloan jarduteko. Doktorego ondoko posizioak babestuko ditugu, ikerketa zentroetako

langile prekarioak egonkortu, lanbide karrera teknikoa eta administrazio eta zerbitzuetakoa garatu, eta prestakuntzan dauden ikertzaileei gainerako langileei aitortzen zaizkien eskubideak aitortuko dizkiegu. Karrera horretan txertatu ahal izango dira, halaber, lanaldi osoko irakasle eta ikertzaile karrera eta karrera akademikoa alde batera utzi zuten ikertzaileak, eta gaur egun soldata txikia duten irakasleen figura horien guztien —esaterako, irakasle elkartuaren— ordezko izango dira.

81. Atzerrian dauden ikertzaileak itzultzeko programa; lau urteko kontratu bat eskainiko zaie eta, epe horren ondoren, egonkortzeko aukera izan dezakete aurrez finkatutako irizpide objektiboak betez gero.

82. RAZN Robotika Aplikatuaren Zentro Nazionala sortzea teknologia digital aplikatuetan berrikuntza polo bat eraikitzeko hiru ikerketa ildo nagusirekin: prozesu industrial berriak, zerbitzuetakoak eta mendeko direnen bizitza hobetzekoak.

45. artikulua.

1. Guztion eskubidea da gizabanakoaren garapenerako egoki den ingurumena izatea, eta guztion eginbeharra ere bada hori zaintzea. 2. Botere publikoek zainduko dute baliabide natural guztien erabilera arrazionala, bizitza-kalitatea babestu eta hobetzeko, eta ingurumena defendatu eta berriztatzeko, behar-beharrezko den elkartasun kolektiboan oinarrituz. [...]

83. Horizonte Berdea: urtero, kapital publiko eta pribatutik BPGaren %2,5 mobilizatuko dugu gure CO_2 emisioak erdira murrizteko hamarkada batean, eta %90 murrizteko 2040. urtean; horrekin, NBEaren Klima Aldaketari buruzko Gobernuarteko Taldearen helburuak beteko ditugu. Gainera, prozesu osoan 600.000 lanpostu garbi sortuko dira

84. Uraren merkantilizazioa debekatzea. Giza eskubide bat —ura, esaterako— finantza produktu bihurtzeko era modernoa emakida eskubideen salerosketa da. Horregatik, ondare komun horrekin trafikatzea legez debekatuko dugu.

85. Uraren kudeaketa osoa eremu publikorako berreskuratzea eta ahalik eta gardentasun

handienarekin, legegintzaldi bakarrean. Horrek esan nahi du uraren hornidura, ureztatzea, saneamendua eta arazketa pribatizatzeko prozesuak leheneratu eta geldiaraziko ditugula, eta Lezo edo Acuamed kasuetan izandako eskandaluak errepikatzea eragotziko da.

86. Neurri fiskalak ezartzea horizonte berdearen bidean aurrera egiteko: ibilgailu hibrido eta elektrikoetan matrikulazioko eta zirkulazioko zerga murriztuko dugu; PFEZa aldatuko dugu eta garraiobide publikoetako bonuak erabiltzeagatik desgrabazioak ezarriko ditugu, baita elektrizitate %100 berriztagarria erosteagatik ere; eta energia berriztaezinaren produkzioa zergapetuko dugu, enpresa energetikoei aplikatutako zerga baten bitartez.

87. Animalien eskubideak babestea. Animalien Ongizaterako Legea onartuko dugu; albaitaritzako zerbitzuen eta animalientzako elikagaien BEZa murriztuko dugu; animalia basatien tratu txarren delitua tipifikatuko dugu, eta animaliak abandonatzeagatiko zigorrak gogortuko ditugu. Era berean,

tauromakiak ez du diru-laguntza publikorik jasoko eta animaliei tratu txarrak ematea dakarten ikuskizunak debekatuko ditugu.

88. **Suteen aurkako borroka areagotzea eta basoko suhiltzaileen lan baldintzak hobetzea.** Neguan, prebentzio metodoetarako finantzaketa nahikoa bermatuko dugu eta suhiltzaileen lanbide aitorpena, soldata, lan baldintzak, egonkortasuna eta segurtasun baldintzak nabarmen hobetuko ditugu.

47. artikulua.

Espainiar guztiek etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea dute. Botere publikoek beharrezkoak diren inguruabarrak bultzatu eta bidezko arauak ezarriko dituzte, eskubide hori eragingarria izan dadin; eta, espekulazioa desagerrarazteko, interes orokorraren arabera arautuko dute lurraren erabilera. [...]

89. **Etxebizitza izateko eskubidea oinarrizko eskubidetzat finkatzea Konstituzioan eta eskubide hori baliatzeko bermeak lege bidez garatzea,** nazioarteko zuzenbideari jarraikiz. Horrek esan nahi du etxebizitza eskuratzeko aukera Estatuko gai bihurtuko dela.

90. Alokairuko merkatuan esku hartzea gehiegizko igoerak eragozteko; horretarako, prezioak kontrolatu behar dira eta alokairu egonkor eta segurua bermatu maizter eta jabe txikientzat, prezioen indizeen bitartez eta Udalen ekintzaren bitartez, familia batek berak ere ez dezan bere errentaren %30 baino gehiago ordaindu alokairuan. Gainera, alokairuko kontratu mugagabearen eredua sortuko dugu, bi aldeei segurtasuna emate aldera.

91. Alokairu publikoko parke handi bat sortzea, zentzuzko prezioan. Legegintzaldi osoan, urtean 50.000 etxebizitza gehituko dizkiogu alokairu sozialeko etxebizitzen parkeari, jabe handien etxebizitza hutsak nahitaez lagatzeko mekanismo baten bitartez —gazteei lehentasuna emango die mekanismo horrek— eta etxebizitzan egiten den inbertsio publikoa areagotuta Europako batezbestekoarekin parekatu arte.

92. Putre-funtsen eta etxebizitzekin espekulatzearen aurka borrokatzea. Diru publikoarekin erreskatatutako finantza erakundeen aktibo toxikoei auditoriak egingo dizkiegu eta, hartara, putre-funtsei edo

Sareb-i lagatako etxebizitzak etxebizitza programetan sartuko ditugu. Finantza erakundeek eta putre-funtsek dituzten etxebizitza hutsen errolda egingo dugu, eta SOCIMIak ezabatuko ditugu.

93. Etxebizitza turistikoen gehiegizko ugaltzeari mugak jartzea, gure auzoetako bizigarritasuna berreskuratzeko eta turismo eredu jasangarri baterantz aurrera egiteko. Etxebizitza turistiko izatera bideratutako etxebizitzen gehieneko ehuneko bat ezartzeko aukera ere aztertuko dugu, auzo bakoitzaren ezaugarrien arabera, jarduera turistikoa deszentralizatu eta bizikidetza hobetze aldera.

94. Behar adina bitarteko ez dituzten zordun hipotekarioak babestea, euren zorra hipotekatutako ondasunaren baliora mugatuta eta zorra berregituratzeko, kitatzeko eta ordainean emateko eskubideak aitortuta. 3 IPREM baino txikiagoak diren diru-sarrerak dituztelako hipoteka ordaindu ezin duten familiak babesteko neurri gehigarriak ezarriko ditugu, eta IRPHa indargabetu egingo dugu kreditu

edo mailegu hipotekarioetan interes-tasa aldakorren adierazletzat, atzeraeraginarekin.

48. artikulua.

Gazteriak garapen politiko, sozial, ekonomiko eta kulturalean parte-hartze aske eta eragingarria izan dezan, botere publikoek behar bezalako inguruabarrak bultzatuko dituzte.

Alokairu publikoko parke handi bat sortzea, zentzuzko prezioan. Legegintzaldi osoan, urtean 50.000 etxebizitza gehituko dizkiogu alokairu sozialeko etxebizitzen parkeari, jabe handien etxebizitza hutsak nahitaez lagatzeko mekanismo baten bitartez —gazteei lehentasuna emango die mekanismo horrek—.

95. Langabeziagatiko babes berezia gazteentzat. Langabeziagatiko prestazioa jasotzeko eskubidea izateko eskatzen den kotizazioaldia erdira murriztuko da 30 urtetik beherakoen kasuan eta, aldi berean, prestazioaren iraupena luzatu egingo da, lan egindako aldiaren heren batetik erdira.

96. Doako garraio txartel bakarra sortzea 26 urtetik beherakoentzat, eta gainerako

biztanle guztientzat bidaia bakoitzeko gehieneko prezioa euro 1 izatea. Aurreko hori hiri eta metropoli eremuetan, eskualdean, uharteen artean eta probintzian aplikatuko da, eta garraio horien kalitatea eta maiztasuna areagotzea ere ekarriko du.

49. artikulua.

Botere publikoek aurreneurri-, tratamendu-, bizkortze- eta gizarteratze-politika egingo dute elbarri fisikoentzat, zentzumen-elbarrientzat eta elbarri psikikoentzat; horiei, eurek behar duten arreta berezia emango zaie, eta bereziki babestuko dira, titulu honek herritar guztiei ematen dizkien eskubideak egikaritu ahal izateko.

97. *Minusbaliatu* kontzeptua aldatu eta XXI. mendera egokitutako beste kontzeptu bat ezartzea horren ordez; kontzeptu berri horri oinarrizko eskubide mailako konstituzio babesa emango diogu, ikuspegia eta edukia Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazioarteko Ituneko giza eskubideen paradigmara egokituta.

98. Irisgarritasun Unibertsala lortzeko Estatuko Funtsa sortzea lege bidez, eta Estatuko

Aurrekontu Orokorretan obra publiko eta azpiegituretara, teknologia berriak eta informazioaren gizartera bideratzen den urteko inbertsioaren %1eko zuzkidura izango du, irisgarritasun unibertsaleko jarduerak eremu guztietan finantzatzeko; hartara, dibertsitate funtzionala duten pertsona guztiei bizimodu independentea izateko aukera bermatuko zaie.

99. Espainiako zeinu edo keinu hizkuntzak konstituzioaren bidez onartzea eta 27/2007 Legea garatzea; lege horren bitartez, Espainiako keinu hizkuntza errekonozitu eta gorrak, gor-itsuak eta entzumen urritasuna duten pertsonentzako komunikazio laguntzak jasotzen dira.

50. artikulua.

Botere publikoek, aldizka eguneratutako pentsio egokien bidez, gutxieneko kaudimena bermatuko die herritarrei zahartzaroan. Modu berean, eta familiaren betebeharretatik kanpo, haien ongizatea bultzatuko dute gizarte-zerbitzuen bidez, beraien arazo bereziei kasu eginez, osasunari, etxebizitzari, kulturari eta aisialdiari dagokienez.

100. **Pentsioak eguneratzeko bermea.** Pentsioak KPIaren arabera eguneratu behar direla lege bidez ezarriko dugu, eta berme hori babestearren, konstituzioan esanbidez jasoko dugu.

101. **Jasangarritasun faktorea indargabetzea;** izan ere, faktore horrek hasierako pentsioa %9tik %18ra bitarte jaistea eragingo luke datozen hamarkadetan. Pentsiodunek lortu zuten PPren Gobernuak 2019. urtean indarrean hasteko prozesua bertan behera utzi behar izatea, baina ez zen ezabatu, 2023. urtera atzeratu baizik.

102. **Gutxieneko pentsioak eta kotizazio gabeko pentsioak handitzea.** Pertsona bakar baten kasuan, gutxienez 600 euroko diru-sarrera nahikoak izateko berme unibertsala ezarriko dugunez —1.200 eurora ere irits daiteke—, gutxieneko pentsioak eta kotizazio gabekoak igo egingo ditugu.

51.1 artikulua.

Botere publikoek kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsa bermatuko dute, eta, prozedura eragingarrien bidez, haien segurtasuna, osasuna eta interes ekonomiko legitimoak babestuko dituzte.

103. 902 telefono zenbakien maula amaitzea.
Jendeari tarifikazio gehigarriko zenbakietara —902 eta horren antzekoetara— deitarazteko praktika desagerraraziko dugu. Bestalde, arreta emateko telefonoak irisgarriak izango dira dibertsitate intelektuala duten pertsonentzat edo adinekoentzat.

Autonomoak eta ETEak kontsumitzaile direla aitortzea korporazio handiekin dituzten harremanetan, betiere beren jarduera nagusiaz bestelako zerbitzuen kasuan.

II. titulua

Koroa

56.3 artikulua.

Erregea bera ukiezina da, eta ez du inolako erantzukizunik. [...]

104. Aforamenduak ezabatzea eta Erregearen erantzukizunik ezarekin bukatzea.
Konstituzioa aldatu eta pribilegio judizial larriena ezabatuko dugu, hau da, erregeak erantzukizunik ez izatearena; halaber, monarkiaren negozioei buruzko ikerketa batzorde bat sortuko dugu.

57.1 artikulua.

Espainiako Koroaren oinordekoak izango dira Borbongo don Juan Carlos I maiestate horren ondorengoak, hura baita dinastia historikoaren jaraunsle legitimoa. Tronu-oinordetzak premutasun eta ordezkaritzaren inguruko hurrenkera erregularra beteko du, eta aurreko lerroak lehentasuna izango du beti gerokoei begira; lerro berean, hurbilekoak lehentasuna izango du urrunekoari begira; gradu berean, gizonezkoak emakumezkoari begira; eta, sexu berean, zaharrenak gazteenari begira.

105. Espainia herrialde feministaren berdintasunarekin konprometituta dago.

III. titulua

Gorte Nagusiak

68.1 artikulua.

Kongresuak, gutxienez, 300 diputatu eta, gehienez, 400 izango ditu; diputatuok hautatzeko, sufragio orokor, aske, berdin, zuzeneko eta sekretua erabiliko da, legeak ezartzen duenaren arabera.

106. Hauteskunde legea aldatzea «pertsona bat, bozka bat» printzipioari jarraitzeko eta sistema proportzionalagoa izateko. Jarlekuak banatzeko D'Hondt formularen ordez Sainte-Laguë formula erabiliko dugu, proportzionalagoa den aldetik.

107. Kremailera zerrendak prozesu guztietan, erakundeetan emakumeen presentzia bermatzeko. Berdintasunari buruzko Legeak txertatu zuen parekidetasunaren araua (%40-60) gainditu eta kremailera zerrenden sistema derrigorrezko bihurtuko dugu; sistema hori ez betetzeko aukera bakarra emakumeen alde egitea da.

68.2 artikulua.

Hauteskunde-barrutia probintzia da. [...]

108. Kanpoko hauteskunde-barruti bat sortzea kanpoan bizi direnen ahotsa entzunarazteko,

eta gure herrialdetik kanpo bizi diren 2,5 milioi herrikideekiko proportzionala den ordezkaritza politikoa izatea.

109. **Kanpoan direnen bozka bermatzea erregututako botoa indargabetuta.** 2011. urtean, atzerrian bizi diren herrikideei ezarri zitzaien oztopo lasterketa ezabatuko da, nahiz eta PP, PSOE eta Cs alderdiek ez duten kendu nahi izan.

69.2 artikulua.

Probintzia bakoitzean, bertako boto-emaileek lau senatari hautatuko dituzte, sufragio orokor, aske, berdin, zuzeneko eta sekretua erabiliz [...].

110. **Ha Hauteskunde legea aldatzea Senatua proportzionalagoa izan dadin.** Gaur egungo gehiengoaren sistema aldatu —horren eraginez, adibidez, PP alderdiak zuzenean hautatzen diren senatarien %62 lortu ditu botoen %30 pasatxo soilik izanik— eta sistema bidezkoago bat ezarriko dugu, Kongresukoaren antzekoa.

IV. titulua

Gobernua eta Administrazioa

103.1 artikulua.

Herri Administrazioak objektibotasunez betetzen ditu interes orokorrak, eta eragingarritasun-, hierarkia-, dezentralizazio-, deskontzentrazio- eta koordinazio-printzipioen arabera dihardu, legeari eta zuzenbideari bete-betean men eginez.

111. **Administrazioa digitalizatzea eta burokrazia murriztea.** Paperak desagerrarazteko prozesuan aurrera egingo dugu eta burokrazia nabarmen murriztuko da. Pribatutasuna errespetatuta, datu publikoak formatu irekietan, elkarreragingarrietan eta irisgarrietan argitaratuko dira, baita enpresek zerbitzu publikoak kudeatzean sortzen dituztenean ere. Datu pertsonalak biltzen direnean behar-beharrezkoak baino ez dira bilduko eta xede jakin batekin; halaber, Administrazioen Subiranotasun Teknologikoko Plana ezarriko dugu teknologia libreetara aldatzeko, sektoreko ETEak indartuta.

103.3 artikulua.

Legeak arautuko ditu funtzionario publikoen estatutua, meritu- eta gaitasun-printzipioen arabera funtzio publikoan sartzea, sindikatze-eskubidea egikaritzeko berezitasunak [...].

112. **Sektore publikoan lan eskubideak berreskuratzea.** Familiako bizitza bateragarri egitearekin lotutako lan eskubideak eta erosahalmena berreskuratzea bermatuko ditugu, baita erretiratzeko eskubideak ere. Eta kotizazio oinarriak murriztu zaizkien pentsioak ere berraztertuko ditugu sektore publikoan.

104.1 artikulua.

Segurtasun Indar eta Kidegoen eginkizuna izango da, Gobernuaren menpe, eskubide eta askatasunen egikaritza askea babestea eta herritarren segurtasuna bermatzea.

113. **Poliziaren eta Guardia Zibilaren soldatak parekatzeko prozesua burutuko dugu;** horretarako, Estatu Espainoleko polizien berdintasun eragingarrirako eta soldatak parekatzeko lege-proposamen popularra gauzatuko dugu.

114. **Espetxeetako funtzionarioen egoera duin bihurtzea.** Haien laneko baldintzak eta baldintza sozialak hobetuko ditugu ordainsariari, prestakuntzari eta bitartekoei dagokienez, eta funtzionarioen eta

lan-kontratudun langileen baldintzak parekatuko ditugu. Plantilla handitu egingo dugu gaur egun bete gabe dauden 3.400 postu hutsak betetzeko, eta espetxeetako perimetroen zaintza-lanak despribatizatu egingo ditugu.

VI. titulua

Botere Judiziala

117.1 artikulua.

Justizia herriari dario, eta justizia hori Erregearen izenean administratzen dute botere judiziala osatzen duten epaile eta magistratuek; epaile eta magistratuok independente, mugiezin eta erantzule dira, eta legearen menpe besterik ez daude.

115. Justizia Erregearen izenean egiten delako aipamen zaharkitu hori ezabatuko dugu; izan ere, justizia herriari baitario egiaz.

119. artikulua.

Justizia doakoa izango da legeak hori xedatzen duenean, eta, edozein kasutan, auzietan aritzeko beste baliabiderik ez dutela egiaztatzen dutenentzat.

116. Tasa judizialen legea aldatzea, inor ez dadin sistematik at geratu arrazoi ekonomikoak direla eta. Era berean, sistema judizialeko profesionalen prestakuntzarako eta espezializaziorako bitarteko gehiago jarriko ditugu, batik bat, genero ikuspegiari dagokionez.

122.2 artikulua.

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia beraren [Botere Judizialaren] gobernurako organoa da. [...]

117. Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia (BJKN) eraldatzea, independenteagoa izan dadin herritarrek zuzenean hautatzeko sistema baten bitartez. Ordura arte, kideak hautatzeko sistema parlamentarioa hobetuko dugu, aniztasuna eta gardentasuna areagotze aldera. BJKNak merezimenduaren, gaitasunaren eta genero parekidetasunaren printzipioak bete beharko ditu eskumeneko izendapen guztietan.

123.1 artikulua.

Auzitegi Gorenak Espainia osoan du jurisdikzioa, eta arlo guztietako jurisdikzio-organo gorena da, konstituzio-bermeen arloan xedatutakoa salbu.

118. Auzitegi Gorenaren izen ona berreskuratzea eta jarrera judizialerako sarbidea modernizatzea. Merezimenduaren, gaitasunaren eta genero parekidetasunaren printzipioak zorrotz aplikatuz gero, galdutako izen ona berreskuratuko da sala guztietan, bereziki, Hirugarrenean. Halaber, karrera

judizialean sartzeko sistema ere modernizatuko dugu, Europako sistemetako elementu onenetan oinarrituta; hartara, oposizio memoristikoan eta prestakuntza pribatuan oinarritutako sistema gainditukо dugu, Botere Judizialaren prestakuntzako akatsak eta joera ekonomikoa betikotzen baitituzte.

119. **Hipoteken zerga jendearentzat berreskuratzea.** Hipotekapean daudenek hipotekekin lotutako eta ordaindu behar ez zituzten zerga guztiak berreskuratuko dituzte, Auzitegi Gorenaren lehen epaian xedatutakoari jarraikiz. Zerga Agentziak bankuetatik jasoko ditu zerga horiek, atzeraeraginarekin.

VII. titulua

Ekonomia eta Ogasuna

128. artikulua.

1. Herriaren aberastasun guztia, horren formak eta titulartasuna edozein motatakoak izanik, interes orokorraren menpe dago. 2. Jarduera ekonomikoan, ekimen publikoa aitortzen da. Legearen bitartez sektore publikoari oinarrizko baliabide edo zerbitzuak erreserba dakizkioke [...].

120. Enpresa publiko elektrikoa sortzea, horizonte berderanzko trantsizioan funtsezko erakundea izango baita; energia berriztagarrien instalazioan eta merkatu elektrikoaren eraldaketan aitzindari izango da. Halaber, argiaren faktura merkatzeaz eta pobrezia energetikoaren eraginpean inor ez dagoela bermatzeaz ere arduratuko da. Udaletako enpresa publikoekin koordinatuta lan egingo du.

121. Bankia banku publikotzat baliatzea. Erakunde hori diru publikoarekin erreskatatu genuenez, sektorean lehia txertatzeko baliatuko dugu aukera hori, gure sistemako elementu produktiboenek eta dinamikoenek —alegia, autonomoek, ETEek eta ekonomia sozialeko enpresek— kreditua eskuratzeko aukera izango dutela ziurtatzeko, hipoteken

merkatuan justizia parametroak txertatzeko eta beste erakunde batzuek betetzen ez dituzten bankuen eginkizun sozialak betetzeko, hala nola kutxazainak edo etxebizitza sozialean inbertsioak egitea.

122. Trantsizio Teknologikorako eta Ekonomikorako Inbertsio Bankua (TTEIB) sortzea abiarazi nahi dugun eraldaketa produktiboa egiteko beharrezkoak diren inbertsio garrantzitsuenak egin ahal izateko, energia berriztagarriak, auto elektrikoa eta beste industria berde batzuk zabaltzeko ez ezik, gure industria digitalizatzeko edo I+G+Bko inbertsioak indartzeko ere.

123. Zentral hidroelektrikoen kudeaketa publikoa automatikoki berreskuratzea baldin eta ustiapen pribaturako emakida iraungita badute edo etorkizunean iraungiko bada; horri esker, gure ibaien osasuna zaindu, ureztatzea bermatu, ur-goraldiak kontrolatu eta edateko uraren hornidura kontrolatu ahal izango dugu, sasiko interes ekonomikoen eraginik gabe.

124. Sektore estrategikoetan parte-hartze publikoa berreskuratzea eta nahita desindustrializatu diren eremuetan Industria Berreskuratzeko Plana abiaraztea. Estatua etorkizunari begirako industria politika batean inplikatuko da, eraginpeko sektoreekin lankidetzan jardungo du eta aurrekontu zuzkidura nahikoa izango du.

125. Monopolioen aurkako legeak indartzea. Indarren desparekotasun handia dago, alde batetik, oligopolioen eta, bestetik, ETEen eta kontsumitzaileen artean, eta desparekotasun hori areagotzen ari da, gure ekonomiaren kalterako. Estatu Batuetako legeriaren antzekoa ezarriko dugu hemen, Administraziorako tresna eraginkorrak dituena. Kartelen eta oligopolioen kasuetan, isun handiagoak ezarriko dira. Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionala indartuko da, eta kideak Kongresuan hautatuko dira.

129.2 artikulua.

Botere publikoek eragingarritasunez bultzatuko dituzte enpresetan parte hartzeko era desberdinak, eta, legeria egokiaren bidez, kooperatiba-sozietateak sustatuko dituzte. Halaber, neurriak hartuko dituzte, langileek ekoizbideen gaineko jabetza eskura dezaten.

126. Klausula sozialak eta kontratazio publikoa, balio soziala sortzeko tresnak. Administrazio Publikoaren kontratazioak helburu sozialetara bideratuko dira, aberastasuna sortzera baina justiziarekin, lan baldintza onekin, ingurumenari buruzko arauak eta genero berdintasuna betez eta, aldi berean, tokiko ekonomia indartzera ere bidera daitezke.

127. Enpresak demokratizatzea. Ekonomia sozialeko enpresak indartuko ditugu; enpresa horietan, egunerokotasunean lanaren eta sormenaren bitartez ekarpenak egiten dituenak enpresa zuzendu ere egiten du. Langileek enpresetako zuzendaritzan eta akzioetan parte har dezaten bultzatuko dugu, Alemanian eta Frantzian bezalaxe.

128. Eskualdeetan enplegu iturri garrantzitsuak diren enpresen deslokalizazioaren aurkako

berme eraginkorrak. Laguntza edo dirulaguntza publikoak jasotzen dituztenek 10 urteko iraupen kontratu bat sinatuko dute (besteak beste), eta berme horiek bereziki ezarriko dira despopulazioaren arrisku handieneko eskualdeetan.

130.1 artikulua.

Botere publikoak sektore ekonomiko guztien modernizazio eta garapenaz arduratuko dira, eta, batez ere, nekazaritza, abeltzaintza, arrantza eta eskulangintzaren kasuan, espainiar guztien bizitzamaila berdina izan dadin.

129. Nekazaritzako eta abeltzaintzako produktore txiki eta ertainak babesteko oinarrizko prezio bat (gutxieneko prezioa) lege bidez ezartzea, eta saldutako prezioaren araberako ordainketa desagerraraztea; izan ere, salmenta mota horretan, produktore edo ekoizleak produkzioa eman egiten du zenbateko prezioa jasoko duen jakin gabe, eta produkzioa azkenean saltzen baldin bada, orduan kobratzen du.

131.1 artikulua.

Estatuak, lege bidez, jarduera ekonomiko orokorra planifika dezake, beharrizan kolektiboei aurre egiteko, herrialde eta sektoreetako garapena orekatu eta harmonizatzeko, eta errenta eta aberastasunaren hazkuntza eta horien banaketa zuzenagoa suspertzeko.

Horizonte Berdea eta Industria Eredu Berriaren, Horizonte Morea eta Zaintza-lanen Ekonomiaren, eta Horizonte Digitala eta Ekonomia Berriaren proposamenak ezartzea; milioi bat lanpostu baino gehiago sortuko lirateke hori eginez gero.

130. Honako presidenteordetza hauek sortzea: Trantsizio Ekologikoa eta Industria Eredu Berria; Feminismoak eta Zaintza-lanen Ekonomia, eta Digitalizazioa eta Ekonomia Berria, erreforma horiek gainerako Administrazio eta eragile sozialekin batera zuzendu eta koordinatzeko.

135. artikulua.

1. Herri-administrazio guztiek aurrekontu-egonkortasunaren printzipiora egokituko dituzte beraien jarduketak. 2. Estatuaren eta autonomia-erkidegoen defizit estrukturalak ezin izango ditu

gainditu Europar Batasunak, hala badagokio, estatu kideentzat ezarritako mugak. [...]

131. Espainian hamarkada galdua eta austeritatea instituzionalizatu dituzten arauak indargabetzea (Konstituzioaren 135. artikulua eta Aurrekontu Egonkortasunari buruzko Legea), aurreko publikoen lehentasuna herritarren ongizatea izan dadin beti.

132. Autonomia Erkidegoetako finantzaketa sistema aldatzea. Autonomia Erkidegoekin hitz eginez diseinatuko da, eta hiru baldintza bermatuko ditu: oinarritzat «gastu muga» izan beharrean, sistema hori «diru-sarreren gutxienekoan» oinarrituko da, eta Espainia osoan zerbitzu publiko duinak finantzatzea ahalbidetuko du; autonomia erkidego guztiek gaur egun baino finantzaketa handiagoa jasoko dute, eta lurraldeen arteko desoreka murriztuko da finantzaketari dagokionez.

VIII. titulua

Estatuaren lurralde-antolaketa

138.1 artikulua.

Estatuak bermatzen du solidaritate-printzipioa, Konstituzioaren 2. artikuluan aldarrikatua, eragingarritasunez betetzea; horretarako, Espainiako lurraldeko toki desberdinen artean oreka ekonomiko egoki eta zuzena ezar dadin begiratuko du, eta, bereziki, uharteen egoera hartuko du kontuan.

133. Hustutako Espainia, lehenik. Landa-inguruneari emango diogu lehentasuna proposatutako erreformak ezartzean, eta inbertsioak deszentralizatu egingo ditugu. 5.000 biztanle baino gutxiagoko herrietan Ondare Higiezinen gaineko Zerga murriztuko dugu, eta diru gutxiago biltzen duten herriei konpentsazioa emango diegu; halaber, funts bat sortuko dugu egoera ahulenean dauden eskualdeetan despopulazioaren aurka lan egiteko.

134. Udalen finantzaketa indartzea populazioaren irizpideari eta beste irizpide batzuei jarraikiz, betiere lurraldeen arteko aldea desagerrarazteko asmoz, eta baso-balioa konpentsatzeko funtsak txertatzea, landa-ingurunearekin lotutako ondasun komunei eusteko herrialdeak, oro har, egiten duen ekarpena areagotzearren.

135. **8131 plana: gure herri guztiak internetera konektatuta legegintzaldi batean.** Banda zabaleko (30 Mbp) eta 3Gko internet edozein bizigunetan, zentzuzko prezioan; sektoreko enpresa handiek prezio horretan lagunduko dute, kanon baten bitartez.

136. **Oinarrizko zerbitzuen paketea.** Herri guztietan honako zerbitzu hauek izatea bermatuko dugu: garraio zerbitzu egokia, eskualdeburuarekin egunero lotzeko, eskatu ahala; etxez etxeko kalitatezko osasun arreta, osasun zentroa izatea ezinezkoa bada; Guardia Zibilaren patruila batek arreta berehala ematea, gehienez ere 15 minutuan; oinarrizko hornigaiak ohiko moduan banatzea elikagai dendarik ez dagoenean; 20 kilometroko erradioan kutxazain automatiko bat, gutxienez, izatea; eta eskualdeburu bakoitzean herritarrentzako kultur etxeak, baita kultura eskaintza deszentralizatua ere.

137. **Lurralde-justiziaren lege bidezko bermea garraio publikoan —kolektiboa edo emisio txikikoa— egiten diren inbertsioetan.** Azpiegitura berriak eraikitzeari eta

daudenak hobetzeari emango diogu lehentasuna, eta historian zehar isolatuta egon diren eta konexio desegokiak izan dituzten lurraldeetan mantentze-lanak egingo dira.

138. Trena bihurtzea lurraldea egituratzeko lehentasunezko sistema; horretarako, inbertsio estrategikoak egin behar dira emisio txikiko garraio publikoko sistema zabaltzeko, zentzuzko prezioan eta herrialdearen ezein zati kanpoan utzi gabe.

139. Lurraldea egituratzea azpiegituretan gabezia handienak dituzten eremuetan trenbideak jarrita edo berehala hobetuta; horretarako, sistemaren auditoria orokorra egin behar da lehenbailehen, premia handieneko tartean zeintzuk diren hautemateko. Trenbide berri eta hobe horiek baliatuta benetako sare efektua lortzea; horretarako, tren bidezko zeharkako ardatzak indartu behar dira, eta Frantziarekin eta Portugalekin lotzen gaituzten nazioarteko tren konexioak hobetu.

140. **Interneteko konexioa oinarrizko eskubidetzat hartzeko eta doako sarbidea izateko lan egitea.** 30 Mbp-ko interneteko sarbidea bermatuko dugu bizigune orotan, zentzuzko prezioan, baita interneteko oinarrizko konexioa izatea ere, eta telekomunikazioen sektorean benetako lehia bultzatuko dugu, faktura hori Europako batezbestekoaren mailara merkatzeko.

139.2 artikulua.

Ezin du inolako agintarik neurririk hartu, baldin eta neurri horiek, zuzenean edo zeharka, oztopatzen badute Espainiako lurralde osoan gizabanakoek askatasunez zirkulatzea eta bertan ezartzea, eta ondasunek askatasunez zirkulatzea.

141. **Gure tren azpiegituretan inbertsioak egiteko plana abiaraztea, kalitatearen, jasangarritasunaren eta lurralde-justiziaren parametroei jarraikiz.** Distantzia labur eta ertaineko zerbitzuak (metroa, aldirikoak/ *rodalies,* eskualdekoak) maiztasun handiagoz egongo dira, eta zerbitzurik ez dagoen tokian, sortu egingo da. Helburua zera da, 2030. urtean, 20.000 biztanletik gorako herri guztietan tren bidezko garraioaren eskaerari erantzun ahal izatea.

142. **Korporazio handiei ez zaizkie autobideen emakidak berrituko.** Bidesariak ondare komunean sartuko dira eta, arian-arian, merkatu egingo dira edo, bestela, doan izango dira. Bitartean, garestiegiak diren tarteetan edo, bidesaria kenduz gero, istripu gutxiago izango liratekeen tokietan, bidesariaren prezioa murrizteko edo bidesaria kentzeko formulak bilatuko ditugu.

143. **Taxia interes orokorreko zerbitzu publikotzat jotzea eta, VTCen kasuan, 2 orduko aurrekontratazioaren baldintza ezartzea.** 1/30 proportzionaltasun araua beteko dela bermatuko dugu, eta aplikazio publiko bat garatuko dugu, non mugikortasunari buruzko informazio guztia (aldirikoak, metroa, autobusak, taxiak eta abar) eta erreserbak egiteko eta ordaintzeko mekanismoak ere txertatuko diren.

144. **Garraiolari txiki eta ertainen eskubideak babestea banaketako enpresa handien eta portu handietako enpresen abusuzko jardunbideen aurrean.** Besteak beste, 30 egunetik gorako ordaindukoak egitea debekatuko dugu, eta kilometro bakoitzeko

gutxieneko prezioa finkatuko dugu, batez besteko prezioetan oinarrituta.

149.1 artikulua.

Honako gai hauek estatuaren eskumen esklusibokoak dira: [...] 25. Mea- eta energia-araubidearen oinarriak.

145. **Erregai fosiletan oinarritutako produkzio energetikoa erdira murriztea hamarkada batean, eta produkzioaren %100 energia iturri berriztagarrietatik lortzea 2040. urtean.** Erregai fosilen sektorean lanpostu bat galdu baino lehen, beste bi lanpostu sortuko dira lan baldintzak berdinak edo hobeak izanik. Trantsizio energetikoa bidezkoa izango da, edo bestela ez da horrelakorik izango.

146. **Berriztagarrien instalazio txiki eta ertainak jartzeko inbertsioetarako zuzeneko laguntzen lerroa.** Partekatutako autokontsumoko instalazioak bultzatuko dituen erregulazioa ere xedatuko dugu, eta berriztagarriei emandako segakadaren ondorioz kaltetutako inbertitzaile txikien egoera konpontzeko irtenbide bat ere ezarriko dugu.

147. Urtean 500.000 etxebizitza, gutxienez, birgaitzea. Egoera ahulenean dauden etxe eta auzoei lehentasuna emango diegu, baita jende gutxien bizi den tokietako eraikinei ere. Familiek energia kontsumoaren %50 ere murriztu ahal izango dute eta, batez beste, urtean 400 euro aurreztu fakturan. Aldi berean, milaka lanpostu sortuko dira eraikuntzan, gainbehera handia izan duen sektore horretan.

148. Ibilgailu elektrikoen edo erregai fosilez bestelako teknologiekin ibiltzen diren ibilgailuen kopurua %25 handitzea Espainian 2025. urtean saltzen diren turismoei dagokienez, eta 2030. urtean %70, 2040. urtean %100 lortzeko helburura hurbiltze aldera. Automobil parkea aldatzeak ez du kostu gehigarririk eragingo familien ekonomian.

149. Argiaren faktura merkeagoa eta bidezkoagoa. Termino finkoak ezin izango du fakturaren %25 gainditu eta, kontsumitutako energiari dagokionez, lehenengo kWh-ak (ezinbestekoak dira bizimodu duina izateko) merkeagoak

izango dira baina hurrengo kWh-en prezioa garestiagoa izango da, alferrik ez xahutzeko.

150. **Energiaren oligopolioan ordena jartzea eta, horretarako, pribilegioak kendu eta boterea ETEei eta argia ordaintzen dutenei itzuliko diegu.** Hori lortzeko, enkantearen baldintzak aldatuko dira: energia berriztagarriak ordainsari egonkorra izango du eta ezerezetik sortutako etekin bidegabeak ezabatuko dira, besteak beste.

151. **Oinarrizko hornigaiak bermatuta.** Sistema elektrikoan egiturazko aldaketak egin ostean, argiaren fakturaren prezioa merkeagoa izango da, baina halaber, ohiko etxebizitzetan uraren, argiaren eta gasaren oinarrizko hornidurak etetea ere eragotziko da, hornigai horiek ordaindu ezin direnean. Laguntza horiek eskuratzeko ez da burokraziako baldintzarik bete behar izango, eta premia egoerak irauten duen bitartean jasoko dira.

IX. titulua

Konstituzio Auzitegia

159.1 artikulua.

Konstituzio Auzitegiak hamabi kide ditu, Erregeak izendatuak. Horietatik lau, Kongresuak proposatuko ditu, bere kideen hiru bosteneko gehiengoarekin; beste lau, Senatuak, gehiengo berberarekin; beste bi, Gobernuak; eta beste bi, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak.

152. Konstituzio Auzitegia despolitizatzea, eta izendapenak egiteko sisteman adostasunari ematea lehentasuna, ez alderdien kuotei. 2015. urtean PPk Konstituzio Auzitegiari buruzko Lege Organikoan egindako «espres erreforma» indargabetuko dugu.

Xedapen indargabetzailea

3. xedapen indargabetzailea

Indargabeturik geratzen dira, orobat, konstituzio honen aurkako xedapen guztiak.

153. Konstituzio hau betetzea ez da bateragarria boteretsuen jardunbide eta arauekin, gure herrialdearen aurrerabidea eragozten baitute horizonte berde eta industria eredu berrirantz, horizonte more eta zaintza-lanen ekonomia feministaren baterantz, eta horizonte digital eta ekonomia berrirantz. Era berean, Konstituzio hau betetzea ez da bateragarria ustelkeriarekin eta herritarren askatasun eta eskubideak urratzen dituzten jarduketekin. Konstituzio honek zera bermatzen du, aipatutako eraldaketa guztiak justiziarekin egingo direla, bai lanaren arloan eta pentsioetan, bai gizartean, bai zergetan, baita lurraldeari dagokionez ere.

A28hauteskunde**orokorrak**

historia zuk idazten duzu

AHAL DUGU
PODEMOS.